

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Pedro Inza Duñabeitia

*Bergara,
Gipuzkoa
(1931)*

Aurkibidea



Biografia



Aldaiegia auzoko
Gaztelugoikoa baserrian jaio
zen, bost anai-arrebatatik
zaharrena. Aita bertakoa zen
eta ama, berriz, Elorriotik
etorritakoa. Aitajauna Oñatiko
Bixain baserritik
Gaztelugoikora etorritakoa
zen. Auzoko eskolan hasi zen,
eta gero Angiozarko gau-
eskolan ibili zen. Bergaran
ere jaso zituen klase batzuk.
Baserritik bizi izan da bizi
guztian. Ganadu eta
artzaintzan zaildua, langintza
horiei buruz hainbat azalpen
ematen ditu. Ziarreta
baserriko Nati Gabilondorekin
ezkondu zen, eta hiru seme-
alaba izan zituzten.
Bergarako toponimia
jasotzeko egindako lanerako
berak emandako azalpenak
oso lagungarriak izan ziren.

Zintak

BER-074

- **Proiektua:** Linua, ehuna eta artilea
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxaniz, Iñaki - Isazelaia Igartua, Jaione
- **Data:** 1994-06-05
- **Iraupena:** 49 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Bergarako Udala

BER-257

- **Proiektua:** Bergarako toponimia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Aranzabal, Arantzazu - Arriaran, Jose Angel "Pierro"
- **Data:** 1991-12-31
- **Iraupena:** 36 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BER-287

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-15
- **Iraupena:** 71 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane

BER-288

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elortza, Kepa
- **Data:** 2010-12-15
- **Iraupena:** 34 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Aldaiegia auzoko toponimia; baserriak

- **Erref:** BER-257/001
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:35

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Aldaiegia auzoko toponimia. Aldaiegia auzoko baserrien izenak.</p>

Transkripzioa

- [...] ikusten dana?
 - Bai.
 - Hor bizkarretik [...] errekatxoraiño ez dok sartzen]. Alde bateko mugarrixa beheraiño ikusten dok ta gero harutzao jaukak beste sail bat. Guazen [lehelengotik]. Ezkerrera zuzen gero...
 - Aber eutsixon honi, Aran.
 - Lastimia zuan denporia hain mozolua egon biharra!
 - Bai.
 - Ta Gaittaokuak hori hemenditxik haruzko hori barrankuori hori dana ikusten dok ondo.
 - Irutontorreta...
 - Zein da?
 - Hau doia hola, gutxi gorabehera.
 - Bueno, hemen azulez darenak die errekak. Eta berdez daren honek tontorrak die. Orduan, [...], hau jungo litzake hola. Orduan, aber... Zuen basarrixa, Gaztelu, da hau.
 - Bai.
 - Orduan, hau da Angiozarko errekia eta hemen dao Irutontorreta.
 - Bestekaldera.
 - Hola izango litzake.
 - Orduan Errosaixo basua, hor, numeroik bajauka?
 - Nun jaok gure etxia?
 - Zuen etxia da hau.
 - Hori? Hau Beltxorrena, Aldaietxebarri, Aldaietxia, honek txaletak, hau Aldaiazpikua, hau Askasibarbolua, [txalet] berrixa ez jak? Honek zeintzuk dittuk?
 - Horrek Beitzibarrak.
 - A, Bergara aldera Amuxkibarrak, Beitzibarrak... Beitzibarrak horrek?
 - Bai. Bueno hau ermittian behian...
 - [Ekoona], bai, hori dok, [Ekoona], bai. Ermittia, bestia Beitzibar, Amuxkibar...

- [...]
 - Aber hau? Lehen esan dozuna, Errosaixo basua, hori? Numeroik jautan horrek?
 - Hogeta sei?
 - Hogeta seixa don?
 - Ez, ez, ez. Hogeta hamaika.
 - Orduan don Irutontorretatik... haxe ingurua don. Hogeta hamaika? [...]. Aber, hau Askasibarrera doian errekatxuau, izanik bai horrek? Hemen Irutontorretatik behera dator.
 - Otsalierrekia. Bueno baiña, kamiñotik... Kamiñua nun jak hemen [Angiozarko bidia]?
 -Hau da. Hau da Askasibar basarrixa...
 -Askasibar basarrixa... Askasibar boluko bidia [zabiz], ezautzen dot nik hau kamiñua. Itxoin, itxoin, itxoin. Honek errekak dittuk.
 -Bai.

2. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Erref:** BER-257/002
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:03:35. **Bukatu:** 00:05:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Aldaiegia auzoko toponimia.</p>

Transkripzioa

- Ta hori, hau kamiñua. Hau Irutontorreta aldia.
 - Hau da Irutontorreta?
 - Bai.
 - Hau gaiña ta ya beherutz.
 - Gaiña zein dok?
 - Hau da gaiña. Honek, gutxi gorabehera, bai, honek, berdez darenak die tontorrak. Hau da Irutontorreta.
 - Irutontorreta. Errosaixo basua hementxe doia.
 - Haxe da, ba. Halakon bat ez?
 - [...] barranko haundi bat jaukak.
 - [...].
 - [...] Errosaixo basua. Beitu, e? Errosaixo basua ikusten dok han?
 - Bai.
 - Goixen, hola. Hau handikalderako partian bajadatxua [...]. Handik hurrengo basua kriston barrankua dok, hemen baiño barranko haundixaua jak. Barranko haundixa. Hori zera zuan lehen angiozartar batzun piñudixa, Soziedadeko basua esaten otsen horri. Ta hori basuoi oin dala lau-bost urte edo saldu ein eben, ta Zubillagako Kortak erosi eban. Atzera zertuta dao, piñu sartuta dauka. Oin, nun...? Ez juat entenditzen hori.
 - Bai, bai ipinita daukat, e? Gutxi gorabehera, bai.
 - Bai?
 - Bai.
 - Bueno, bueno.
 - Bai. Tontor hori da...
 - Hau...
 - Bai, bai, haxe pareko... erreketxura allegau barik.
 - Bai, errekatxura ez dok allegatzen. Bata be ez dittuk... Bi sail dittuk, bi

sail. Dok formia [...], sail baten formia hoixe dok. Honena. Kantoia, e? Behera. Hau [esaten dot], kanto(i) bat honaiño; gero bueltan hona, zeharkatzen dok eta hona behera, hona behera. Ta bestia hona tiratzen jok, beste hanka bat. Hemen erdixen daukou beste baten adarra.

- Errekatxuak ze izen esan dozu?
- Errekatxuak... harek [ez jaukak errekatxorik].
- Hor behera datorren hau?
- Ez, behera datorrena Otsaleierrekia. Nik esan dostat hori, Otsaleierrekia, hona beheraiño. Gero han goixan harek eitten dittuk, hiru errekatxo juntatzen dittuk batera.
- Horrek apuntatzen [hemen]... Bat etorri bihar da hemendik ta bestia handik. Bai?
- Hiru errekatxo juntatzen dittuk. Guk esaten dotsau Aldaiko... gure [posturetakua], e?
- Bai, bai, bai.
- Aldaiko txabolazarpeko errekatxua.
- Hori zein, ezkerrerao dauena?
- Ezkerrerao. Hemendik ez dok ikusten.
- Zein izango litzake?
- Erdiko beroi, [...] Aldaiko txabolazarpeko errekatxua. Errekatxo txikixak dittuk, e, [zatitxo batzuk] dittuk. Eta bestia honutz hemendik, handik gure aldera etorri ta hor, piñua, [atzenengo piñua] ikusten danetik hara kriston barrankadia dao beste alde honetara be. Askasibarbolutxo txabolapeko errekatxua guk; guk, e? Harek eukiko dau beste batendako beste izen bat.
- Ta hemen dauen tontor honek?
- Hori gero esango dostat hori. Ta hirugarren errekatxua Trangotako errekia. Lehen esan douna.
- Zela?
- Trangota.
- Eskumako hori?
- Bai, hirurak juntatzen dien une haura Trangota arrua, guk. Akotau basotik behera datorrena.
- Itxoin, Akotau basua zein zan?
- Horrek lehen, ba, Angiozarko soziedadia zuan, hor. Bederatzi propietarixo zittuan, [???nekua] ta, Elgetako be bai [Ubarixakua, Ubarixa txikixa], ta bederatzi sozio. Ta harek saldu in juen hori basuoi. Eta saldu juen basua egur ta guzti ta Zubillaako Korta horrek erosi. Ta oin atzera plantauta dauka piñua.
- Ta hori zeroi nun esan dozu gelditzen dala?
- Errosaixo basua esan juau, ba?
- Bai.
- Errosaixo basotik hurrengo haruzko piñudixa ikusten dan [bittarte horrek], zer haundixa, barranko haundixa.
- Hau zonan hogeta hamabi? Ta Trangua?
- Trangota arrua hau.
- Baiña ze numero?
- Hori, hori, Trangota arrua.
- Hogeta hamasei.
- Hori guk, e? Oin, beste batek eukiko dau beste [postura] bat.
- Baiña hori bihar dou, zuek zela esaten dozuen.
- Zeuek esaten dozuen, e? Hor ez dao.
- Ta gero honi, tontor honi, guk esaten gontsan Belako tontorra. Guk, e?
- Hogeta hamazazpi.
- Bai.
- Belako tontorra ta Basaldei, horrek izen bixok ibiltzen zittuen horrek.

3. Aldaiegia auzoko toponimia.

- **Erref:** BER-257/003
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:05:00. **Bukatu:** 00:05:46

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Hori, e, hori [altun] dao.
- Altuana?
- Bai. Ta horren ostera jak zer haundixa atzera, bajada hundixa. Basaldeiko laua handik hurrengo, Basaldeiko laua.
- Hogeta hemezortzi?
- Bai
- Oin, beste zelebrekerixa bat daok hor, handik [jun] lautada hortatik, harutz, sail haundi bat [dao], Beitzibarreko sailla dao, hari esaten gontsan Katenbideta .Gure izenak, e? Oin gu horrekin entenditzen gara.
- Ze da basua?
- Basua, piñua jak.
- Lautik, hola, pixka bat eskumetara, ez?
- Hola, laua, e? Ta laua gero Irutontorretara joiak. Ta sail haundi bati Katenbideta. Guk, e?

4. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Erref:** BER-257/004
- **Iraupena:** 0:04:14. **Hasi:** 00:05:46. **Bukatu:** 00:10:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Belakotik behera hor ikusten dok, holan, sakontxo bat?
- Bai.
- Notatzen dozue, nik ikusten juat, baiña...
- Tontor haundiñetik honutz, ez?
- Eskumarantz.
- Eskumara, bai.
- Laiñua ikusten dok gaiñian. Koskoltxiki arrua. Horrek bihar dittuzue, horrek izenok?
- Bai, bai bai, horrek jo ta fuego, danak. Bestela horrek galdu ingo die, Jesus Marik erdixak jakingo dittu, ta hurrenguk gutxiao ta...
- Gero Koskoltxiki horretatik honutzatxuau juntatzen dittuk, ba, bat, bi... lau bide be bai. Hiru bide. Kurutzia. Nun dauen hor nik ez [dostat] esango, e? [...]. Kurutzia. Ta handik hona, Otsalai aldera, Otsalaiko pista aldera jo, eta beste barrankada bat jak, [Beitzibar...] bestekua [Baldezarreta]. Piñu jak. Horrek komeni jatzue ala ze ala... horrek dittuk?

- Bai, bai, bai. Hor, piñudixa?

- Piñudixa, piñudixa, dana dao piñua. Ta Baldezarreta horren azpitan jak beste baso-sail haundi bat, Ipintze sailla.

- Errekatxo ingurua ya?

- Angiozarko errekoa zein dok? Edo... Otsalerrekia zein dok?

- Hau.

- Ba, honetxan kontra pegante jak, mugarria jaukak azpittik, errekoa azpittik. Ipintza sailla. Hori, Ipintza basarria dao hor Bergaran kanpofubolan onduan? Ba, hangotxia.

- Beste... hemen, aurreko tontortxo hau ?

- Hau tontorra? Bueno, harutzaokua nahi badozue nik esango dotsuet. Beste [...] tontor bat daok... Hemendik ez dok ikusten, e? Irabasisaillako tontorra. Baso muturtxo batzuk, e? Ba... muturra ez, sail haundia da.

- Ta hori nun egongo litzake?

- Hori Otsalaierrekia zein dok hamen?

- Hau.

- Bueno, ba, honetxan pegante barrena [itten jun]... Hori ez juat nik entenditzen.

- Ipintzako sailla baiño behera?

- Ipintzako sailan kontrari. Ipintzako sailla nun markau dok hamen?

- Gora begira jarritta, ezkerretara?

- Bixak ezkerretara, pegante, bixak pegante jazez, piñudixakin elkar jotzen jek. Eta gero, hori esan dot, Irabasu tontoretik gorako hori basoan, Beitzibar erdikua edo, Beitzibarreko esparrua. Hori...

- Gorau?

- Bai, horreandik gora.

- Zela esan dozu hori?

- Beitzibarreko esparrua. Esparrua, ta Esparrupia ta horretxek. Guk ganauak ibiltzen giñuzenian, ardixak ibiltzen giñuzenian, ba, "Nun [jebizten]?" Ta "holako lekutan", Esparrupian, Esparruan edo esaten gontsen. [...]. Hau tontor hau, hau aurreko tontor hau, [honek piñudi honek], [...] harutzatxuak jak beste sail bat guria, Baldezarretatik hona, gure aldera. Piñudiaundia esaten gontsen guk, geure basua da. Honek tontortxo honek izena politta dauke: Sorginzelai. Ta [...]. Hor Mozolotei be bazuan behian, [...] basarria.

- [...] zein da? Baserrira zeuan hor?

- Basarria. Oindio zimientuen harrixak jazez, baiña ezkutata jak. Otseleiko errekan kontra-kontra-kontrari. Horixe izengo dok...

- Hauxe izengo da.

- Ba, kontra-kontrari jak. Mozolotei. Haura desaparexiduta dao.

- Mozolotegi izena zeukan harek?

- Mozolotei izena.

- Inguru horretan...

- [...].

- Baserrirak. Eta gero baso bat edo badao hola deitzen dotsazuena, edo ingurua edo?

- Baserrira zuan Aldai azpikua, baiña etxian izena zuan Mozolotei. Mozolotei hori. Eta gero harutzatxuak horrek tontor horrek [... dauen] aldera, Antzolak bizkarra, guk esaten dotsau Antzolak... hori tontor [... aldetik hona] ezkerretara, Antzola, [Aldaiazpiko] basua, Antzola, bizkarra ta Antzola sailla.

5. Aldaiegia auzoko toponimia

• **Erref:** BER-257/005

• **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:15:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Ta hau beste hortik Eudi alderako barranko hori, hori sakontxo hori Iskueta arrua. Hau, e? Horrek errekatxua dauka goittik behera errekaraiño.
- Ta errekatxo horrek izenik bai?
- Iskueta arrua.
- [...]
- Errekatxo horrek izenik bai?
- Iskuetako errekaia guk. Guk hola esan izen dou. Oin, zela izengo da? Ez dakit.
- Eta inguruai, Iskueta arrua?
- Guk hori. [Horixe da barrankotxua]. Iskueta arrua ta gero, ba, hortik Iskuetako errekaia beheraiñok. Saillak batanak eta bestienak dare, baiña, Iskueta arrua. Hamen gure barrenian, oin urte askoko kontua izen bihar jok, [Jose], hemen jazel gure basuek, behien, bi baso pusketa. Izena jaukek Bolalekua.
- Hortxe justo barrenian?
- Hamentxe, hamentxe.
- Errekian beste alde edo nun?
- Zelaixen kontraraiño. Ez, handikaldetik, bidia, joteraño. Bi baso jazel, Beitzebarrerdikua erdixan, ta geuria. Alde banatan. Ta jaukek izena Bolalekua. Ta hor oin urte asko zala ei zan Bolalekua, jokuan eitteko. Hori nik entzundakua, nik ez dakit.
- Bai, bai, hola izengo zan. Izen hori eukitzeko, ezta? Horri basarrixai zela esaten dotsazu zuk?
- Eudi.
- Bizkar horrek izenik badauka, Eudi azpitan dagan horrek?
- Dios! Entzun, erok esaten jauena Aitzako za... tontorra. Aitzako zabala edo tontorra. Behintzet zeoze hola nahasten dittuk. Oin, nik esango dotsuet, hor Eudittik harutz bajak, ba, tontorra? Tontor hortatik honuzkuak, e? Haruzkuak [...]. Tontor horrek goittik hasi, han Belakuan esan doun... Basaldeiko tontorra ta Belako zabaletik beherako [arrankadatxo] hori Altzeta arrua. Horrek errekaia jaukak txikixa baiña beheko errekaraiño.
- Beheko baserrixoi, erreka...?
- Beste bat jak, beste baserri bat jak bittartian, apurtutakua. Ta hori bizkar hori, Arantxobizkarra. Eudittik haruzko tontortxo hori, Arantxo, bizkar hori. Hortik aurrerakuak Gaittaokuak esango dotsue. Terrenuakin... Eudiko etxetikan behera ikusten dittuzue harek bi zuri-una harek? Ba, haren azpikaldian jak beste etxe bat zaharra, apurtutakua. Haura Amuskibar Etxebarrialde.
- Hemen beste izen batekin dao.
- Hor hartu dittuzue nunbaitetik.
- Juanek esan oskun horrek. Amuskibar Zaharra esaten otsan harek.
- Amuskibar zaharra [...]. Hemengo nere aman... amandrian etxia haxe. Gure aittan ama han jaiotakua zuan. Izena ez naiz akordatzen. Manu... ez. Izena ez naiz akordatzen. Gero beheko basarrixia Amuskibar.

6. Bergarako auzo eta auzuneak; mugak

- **Erref:** BER-257/006
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:15:00. **Bukatu:** 00:20:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bergarako auzo eta auzune desberdinak; mugak. Toponimia.

Transkripzioa

- Ta han parian badauka beste etxen bat edo Amuskibarrek?
- Amuskibarbola. Noizbaitten errota izendakua.
- Auzuai zela deitzen dotsazue, zeuen auzo honi edo?
- Ba, lehen esaten zuan Sankristol auzua ta oin, ba, Aldaiegia auzua.
- Gero, gu bizi garan herrixai zela deitzen dotsazue?
- Angiozarri? Guk Angiozar.
- Auzuak, Angiozarkuak?
- Ba, Partaitti, Aixkoneta, Mainddao, ta Zabaleta auzua guk, Zabaletamendi [...] bezela...
- Ta Gontzarri hau, honek?
- Goimendi.
- Ta hau beheko hau? Loidi ta honek?
- Bertako hemengo auzua, Sankristobal, bertako auzotzat guk, ermittakuak dittuk eta.
- Ta Errekaldia edo ez daukazu hor?
- Bai, Errekaldia ta hau oin esan doten izena dana bat, Aldaiegia auzua eta Errekaldia bat. Bat.
- Bat eitten dozue?
- Bat. Sankristobal auzua bat.
- Osea, Errekaldia eta Sankristobal auzua berdiñak die?
- Berdiñak. Errekaldia hau danau da ta Sankristobal auzua be bai. Ta oin etorri da aiuntamentutik hor daona, Aldaiegia auzoa, hori tokatzen dala ta hori, ba...
- Eske Angiozarkuontzat Errekaldia da honarte, erreka mugara arte.
- Danai esaten dotsazue, ez?
- Bai Errekaldia ta...
- Loidi aldia be esaten dotsau, baiña Errekalde.
- Ta Errekalde hemen edo... hau, Sankristobal auzua, goittik noraiño izango litzake Errekaldia? Aixkunetakin tope nun itten dau ?
- Aixkuneta partia? Angiozar partia?
- Bai, Aixkuneta nun hasiko litzake?
- Elizaz Askaxibarbola, Angiozar partia elizaz, nik uste juat. Ez jakixat, ba, nik...
- Gero hor kamiño honek, errebueltak eta darenak, hari zela...?
- Uspe.
- Uspe Aixkoneta izango litzake ya?
- Bai, Uspe bai, Uspe Aixkoneta da. Terrenuak dittuk Uspen Aixkonetakuak.
- Errota be, zera da ez, Aixkuneta?
- Errota? Basarrixa Aixkoneta. Aldaitxarrena, ba, Aixkoneta izango zuan. Bolintxo Angiozarkua izango dok. Edo?
- Aldaitxar... zein esan dozu hor?
- Aldaitxarreneko errota.
- Zein da hori?
- Hori apurtuta jak. Oin ipiñi juek aiuntamientuko zera, hori garbitzeko hori.

- Bai, depuradoria.
- Depuradoria. Hantxe onduan jak txabolatxo bat.
- Uspetan behera datorren errekatxuai izenik emoten dotsazue?
- Usperekia guk, guk besteik ez.
- Honutz dauen beste errekatxua, Arreittik behera? Arreittik behera datorren errekia?
- Urrango errekia.
- Ta gero hemendik datorrena?
- Aldaiko errekia? Ez jakixat, ba, ze izen eukiko daben, zela nonbrau neikien hori, Aldaierrekia esaten juau eta. Aldaiko etxeondotik pasatzen dok eta.
- Han txabolan bat edo badao errekatxo horren han goixan. Izenik bai harek?
- Bai, Kirimaingo txabolia.
- [...].
- Motrallu apuntau dozue?
- Motrallua, zein da hori?
- Txabola horretatik Angiozar alderatxuao jak holako mendi tontortxu bat Motrallu izena daukana.

7. Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia

- **Erref:** BER-257/007
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:25:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia.

Transkripzioa

- Txabolia nun jak?
- Hau, eta hau Arrei.
- Hemen bittartian jak. Hortxe dok. Arrikotxo nun jaok hamen?
- Arrikotxo hau.
- Ba, hemen, hementxe.
- Halakon bat?
- Bai, Motrallo.
- Honi gaiñoni izenik emoten dotsazue? Arrikotxo han pare-parian behetik gora begira jarritta, hola, Arrikotxo, pixka bat ezkerretatxuau, hola, tontortxo bat edo gaintxo bat edo. Izenik bai?
- Elgeta aldera?
- Bai. Arrikotxo pare-parian, e? Hola, lautada bat edo...
- Arrikotxotik Elgeta aldera. Nik ez, nik ez jakixat horren izenik.
- Han, Arrikotxotik hemendikaldera?
- Bergara aldera?
- Bai. Haundiñai, tontor haundiñai, izenik bai?
- Guk esaten gotsan hari Txarako zelaixa.
- Gaiñai?
- Gain-gaiñai. Oin aiuntamentuak ein dau kasetatxo bat be bai ta [...] lineak be hantxe jazik, eta guk Txarako zelaixa. Guk horrekin. Ta gero handik honutz, honek Aldaiko esparruak jazik, Aldaiko esparru guena guk. Baiña...
- Handik honutz?

- Handik hona, gure aldera. Beltxorren aldera. Eta gero hori Txarako zelaia akabatzen danetik hamentxe pare-parian dao bestia, zerana, Herriko basua ta, Meltxorreko esparru gaiña.

- Oinddio gaiña baiño...

- Bergara alderao. Ta gero honen kontra-kontra jak beste izen bat jaukak, Bostaitzeta, Meltxorreneneko sailla dok. Honen kontra, honen pegante jak.

- Ya gaiñian?

- Hementxe, hementxe jazik, hortxe, [...] par... gain-gaiñian, gain-gaiñian. Horren pegante. Ta horren segidan, igual ipinita eukiko dozue, haura gaiña Kurutzia mendixa, Kurutzia gaiña. Hori ipinita igual eukiko dozue.

- Bai, Aizpek esan oskun, bai. Lauaitzetatik beherutz...?

- Bost. Bostaitzeta, e?

- O... Bostaitzetatik?

- Bostaitzetatik honutz, ba, Arrekotxon sailla, goixen hor raso ikusten dan hori. Beltxorsailla. Hor baserrixak jarek apurtuta, ezkutauta.

- A, bai?

- Beltxorrena nun jak hamen?

- Hemen.

- Ba...

- Hau Bostaitzeta.

- Hori Bostaitzeta...

- Hemen errekatxo bat doia Beitzibarrera.

- Beitzibarrera?

- Bueno, igual udan bakarrik eruango dau ura, e! O... neguan.

- Bai, euri haundixa eitten dabenian. Hau Beltxorrena... ba, hamentxe nunbaitten jarek basarrixak.

- [Iritzira esan jok horrek]!

- Beltxor hau dok... Beltxorra, hau dok Unamuno barri ta hori dok Unamuno zahar.

- Errekatxo horrek izenik bai?

- Beitzibarko errekia, ba, Lesaango errekia. Lesan hortxe jak itturria, Gaittaoko itturri oso inportantia izango zuan sasoen baten hori, ta Lesanerrekia. Hori Beitzibarrera doiena, e?

- Hor beste saillik edo? Beltxorrenetik hona bittartian edo?

- [...], Mobillasen saillak jazek hamen. Hori interesatzen jatzue?

- Bai, bai, izena emoten badotsazue zeuek...

- Ba, nik hamen, Arrikotxonan barrenien guk geuk izena esaten jauna Olazabal, Mobillasen sailla. Hori ta geure basua gaiñekaldera dao.

- Hori ze dao errekatxotik honutz?

- Bai, hamen, hamen, hortxe, errekatxotik honutz, gure aldera. Errekatxotik hona, gure aldera.

- Hau errekatxuau... Gaztelu? Holaxe edo? Hau zuen etxia...

- Hau Beitzibarrerakua dok?

- Bai, Beitzibar errekia.

- Itxoin, hemen beste erreka bat falta dok.

- Hau izengo da igual.

- Gure etxia zein dok?

- Hau.

- Hemen falta dok beste bat.

- [...].

- [...] Sankristobalera doiena. Hori goittik dator, e! Beltxorreneraíño markau.

- Hamendik...

- [Beltxorreneraíño] baiño goratxuaotik edo.

- Eta ze izen dauka erreka horrek?
- Batzuk esaten dabe Gaztelu errekoa.

8. Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia

- **Erref:** BER-257/008
- **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:30:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Angiozar eta Aldaiegia auzoetako toponimia.

Transkripzioa

- Horri... lehen esan dou Mobillasen zer hori...
- Olazabala hori esan juat. Mobillasena ta bestia Beltxorreneko [...]
harizitixa hari guk esaten dotsau, baiña... nik gure basuan esango dotsuet
Otarre beste pusketa bat.
- Zein da Otarre?
- Otarre nun?
- Hemen, hor bertan.
- Hauxe parekuau?
- Bai. [...] hemen; hori [...], hori da Otarre. Ba, hemen honutzatxuau dao
beste bat Otazar.
- Otarren ezkerretara Otazar?
- Bai, Otazar.
- Basua be bai, ezta?
- Bai. Ta hor bistan dauena... ni... baso-pusketa txikixak dittuk, e? Hor
albuan Otatxiki.
- Otarren azpixon?
- Pegante azpira, bai, albora, alboratxuau.
- Gutxi gorabehera...
- Han, han, han bistan, keian parian, bistan.
- Bale.
- Honek txorrada danok hartu bihar dittuk?
- Bueno, hamen, hau, zeuena. Hori goiko piñudixoi Askasibarboluko
piñudixa guk esaten jau. Otazar dao horretxen azpixon, guria. [...]. Eta
horren Boluko esparrua esan dotena azpikaldia, guria, Sooguena.
- Itxoin Boluko esparrua, ez dakit nun apuntau doun hori. Ze izango litzake
Boluko esparrua?
- Guria edo?
- Bai.
- Hau Beltxorrena, hementxe egongo dok [...]. Hemen jak alde hontan
Sooguena guk esaten jauna, zelai honen guena. Hortxe hortxe, hor. Gero
hona Aldai alderatxuao jak Aldaiko zelai haundi bat jak Sooluzia, zelai
haundi bat, Sooluzia.
- Aldaiko errekatxuan harutz, zatirik-eta bai hor edo? Izenik? Soron bat
edo...
- Bai, Asasti. Aldai Etxeberri nun esan juau?
- Aldai Etxeberri hau, hau errekatxua.
- [...] Asasti, ez hemendik.
- Aldai Etxeberrin gaiñian?
- Hemen, alde hontara jak Asasti, hemen, alde honetara; gorao edo

beherao, alde hontara.

- Aldai Etxeberri baiño goratxuau?

- Bai, honutzao, [...].

- Ta zer da hori, Asasti hori, basua?

- Asasti. Hori da Aldaiko zelai ondua.

- A, zelaixa.

- Zelai haundi bat, zelaixa ta basua ta dana.

- Zer da, bizkar bat edo hola da?

- Ez lau-laua da. [...]. Laua ez, e! Aldapia [...].

- Bai, bai, bai. Hor besteik beherau edo?

- Aldai Etxeberri hori?

- Bai.

- Horrek alde hartara... [ezin neike horri heldu]... goratxuauan beste sail bat Aldai Etxebarrikua, Egisoua.

- Aldai Etxebarri gaiñian?

- Bai, Angiozar alderatxuau.

- Errekaxuatik harutz? Angiozar alderutz?

- [...] Egisoua. Ta hau, esan dozu, Urranerrekia?

- Hori Askasibar bolura doiena, bai.

- Askasibar bolu hau dok.

- Hau da zerera doiena.

- Askasibar bolua hau da. Hau da Urranerreka.

- [...], eske hemen gaizki ipinita dao.

- Askasibar bolua hau?

- Bai, hau izan bihar. Hau [Aldaiazpikua...]...

- Hau da Urranerrekia, [...] doiena.

- Ta hau [ze]?

- [...].

- Han kamiñuan parian dauana, kanteria edo hari, izenik emoten dotsazue?

- Kantera haundi hori?

- Kantera zaharrau?

- Bai.

- Urrango kanteria, Loidi... Urrango kanteria, Loidiko kanteria. Ta Urrango kanteria esan ezker, horrekin entenditzen gaittuk.

- Kantera zaharra be bai.

- Bai, Kantera zaharra... Loidiko Kanteria... Urrango kanteriaz engeneral.

9. Aldaiegia auzoko toponimia

• **Erref:** BER-257/009

• **Iraupena:** 0:05:00. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:35:00

Gaia(k):

• Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Izen mordo bat esan dozu! Guk gehixena batuta daukaulakuan, baiña ...

- Aistilaua ta?

- A, bai... Aistilaua geure basua dok.

- Aistilaua... hamen... hemen inguruan izango da, hamen inguruan.

- Aldaietxeberri ta Beltxorrena bittartian?

- Bai.

- Aldaietxeberri zein dok?
- Hau.
- Itxoin, e? Aldaietxeberri, Beltxor... Aistilaua hementxe jak.
- Beltxorren azpitan edo holan?
- Bai, [...] azpitan dao.
- Bai, hor badao lau bat. Pista bat pasatzen da hor?
- Bai.
- Hau kurutzia igual izango dok pistia, e?
- Hau da pistia.
- Bai.
- Bat hor beheraka edo beste bat gorutz. [Gora hor ez dare] ya...
- Beltxorrena baiño honutzatxuau jak beste bat, gure basua, Lezia, Lezangua.
- Beltxorrena parian?
- Parian pixkat-pixkat beheratxuau, Angiozar aldera, e?
- Angiozar aldera...
- Hortxe. Hau pistia da? Gora doian pistia da?
- Beltxorrenetik gora, hemen, e? Hemen behera, hemen, hemen. Hor.
- Ze izen da hori?
- Lezangua. Haura jak [...], zulo haundi bat, Lezia.

- Aber, zelan esan dozu hori?
- Hamen, Goiko esparrua, [hori kuadrotxo...].
- Beltxorrenan gaitian?
- Bai, Goikoesparrua. Zelaixa dauena. Meltxorrenan gein-geitian dao haura.
- Meltxorren pare-parian.
- [...].
- Otarre ta [...] dittuzu ?
- Otarre...
- Bai, bai.
- Otatxiki ta? Iturrondua-ta?
- Iturrondua... Danak ezin [...] esan, ba! Iturrondua ez. Zein da hori?
- Etxian atzekaldian, iturri zaharran onduan. Etxiaz handikaldetik hortxe egongo dok.
- Hor inguruan?
- Bai.
- Etxian hor errekatxo parian, etxe onduan?
- Bai, dao errekatxo aldera. Bai, hortxe.
- Bai, hori errekatxo arruoi [...]. Ta hamen behian etxetik hor beheko horri sakonorri, Errekabarrena guk esaten dotsau. Guk, e?
- Ba... geuria.
- Eta hamen beste bat jaok...
- Honi bizkarroni...
- Beherau?
- [...] pistiaz ezkerretik.
- Erdiko maillia.
- ... sooko mailla bat.
- Hori txikixa da, e?
- Hori txikixa dok, e?
- A, halaxe.
- Ta beste bi soro dare, dana sail batekua da, baiña bi izen dauzke; bata da Anton sailla.
- Hamen inguruan, kurba hori, aurreko maillia.
- Ta bestia da Kurrielsailla.

- Hau Antonsailla?
 - Antonsailla behekua da, ez?
 - Bai.
 - Behekua Antonsailla ta hori Kurrielsailla. Beherao.
 - Beherao?
 - Beheratxuau. Hola, hola.
 - Papela zikindu dostat.
 - Kruzia, Elordei.
 - Partilekua.
 - Elordei.
 - Elordei, bai.
 - Elordei ta Partilekua, [hori], bidekurutzia.
 - Bidekurutzia?
 - Kruzia, pistiana-edo, kruzia...
 - Bai, bai, bai.
 - Hau kruze hau.
 - Bai, bai.
 - Elordei eta Partilekua.
 - Bi izen toki berdiña [...]...?
 - Partilekua da pistien kruzia.
 - Bai. Ta Elordei da azpiko sailla.
 - Beheko sailla Elordei.
 - Ta horrek izenok batzen dittuzue? Horko izenak?
 - Sorotxikixa be ez dozu esan, Aldaiko aldia be ez...
 - Ez, ba, Aldaialdia be ez...
 - Aldaialdia be ez. Txaraurria be ez, Txaraostia [be... bai].
 - [...].
 - Han sagarrak daren sailla Sorotxikixa.
 - [...]. Itxoin, e...
 - Sagarrak darena.
 - Ta han handikaldia, kruzera ta pistara bittartekua, Aldaialdeko soua.
 - Hori behera.
 - Handikaldia. Ta, pentsaizu, honi aldrebes esango dotsau, baiña Soolaua, oin gu garenai.
 - Gu garenai?
 - Soolaua?
 - Aldaialdia jo arte. Ta pentsau zelako lautadia dauen.
 - Bai, ba, lau iñun be ez dao ta batenbati, ez [ahaztiaaittik]...
 - Txaraurria be ez dozu esan, Txaraostia be ez.
 - Zeintzuk dia horrek? Txaraurria...?
 - Hori da Txaria...
 - Txaria jak hor erdixan.
 - ... eta ostian daona Txaraostia.
 - Handikaldetik dauena. Otazar jo arte, lehen esan doun Otazar ikutu arte, Txaraostia

10. Aldaiegia auzoko toponimia

- **Erref:** BER-257/010
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:36:00

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Aldaiegia auzoko toponimia.

Transkripzioa

- Ta hor goiko... Zu, Sorotxikixan gaiñekaldian Sooguena. Horrek danak hartu bihar badittuzue, Soogueneko soua.
- Sooguena apuntau dok.
- Bai.
- Bai. Goiko laua be bajak hor. Igual da.
- Ta Txaraurria bestekaldera.
- Txaraurria honutz?
- Bai. [...]. Ta Otazar da goiko...
- Ez, ez, Otazar... Txaraostian pegante dao Otazar.
- Txaraostian honutz, ta gero Oterre...
- Ta gero harutzatxuau dao Txaraostian barrena ta Oterren barrena, Karabiondua, karobixa eitten zan antxiña.
- [...], zelaixa.
- Antxiña karabixa eitten eben han, edo karia.
- Hau da errekatxua, errekatxuan onduan dao hor inguruan.

11. San Kristobal auzoko eskola

- **Erref:** BER-287/003
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:04:35. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

<p>Etxean lanik ez zegoenean joaten ziren eskolara. Baserrikoak eskolan beti atzeratuta joaten ziren, eta nahiago izaten zuen etxean lanean geratu. San Kristobal auzoko eskolan adin desberdinetako umeak elkarrekin ibiltzen ziren. Maistra bertan bizi zen alabarekin.</p>

12. Angiozar auzoko gau-eskola

- **Erref:** BER-287/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:07:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Pixka bat koskortu zenean urtebete inguru egin zuen Goiko plazako maistra batekin. Gero, Angiozar auzoko gau-eskolara. Maisua erdalduna zen. Neguan zurrakapotea hartzera joaten ziren beheko tabernara, eskolatik irtendakoan. Benita zen hango nagusia.</p>

13. Fusilen bala eta kartutxoekin nola jolasten zuten umeek

- **Erref:** BER-287/005
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:07:28. **Bukatu:** 00:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

San Kristobalgo eskolan euskaraz ikasten zuten. Adin desberdinetako neska-mutil ugari elkartzen ziren. Gerraostea zen. Inguruko baserri batean soldadu asko egon ziren. Umeek han aurkitutako bala eta kartutxoak eskolako atarian zegoen pinu baten ipurdian jarri eta su nola ematen zioten kontatzen du.

14. Gerra sasoian aitajaunarekin bizi izandakoa

- **Erref:** BER-287/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:14:30. **Bukatu:** 00:15:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoian, mutikoa zela, aitajaunari soroan gora atzetik segituta bizi izan zuen gertaera. Nazionalek hegazkinetatik bonbak bota zituzten, nahiz eta behean zeudenek (haiek ere nazionalak) zapi zuriak atera. Beldurtuta, etxera itzuli ziren eta Pedroren aitak errieta egin zien biei.

15. Mutikotan artzain lanean

- **Erref:** BER-287/010
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:17:10. **Bukatu:** 00:18:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

<p>Ardiak zaintzen ibiltzen zen mutikotan. 60-70 ardi izaten zituzten. Aurreko mendira bi buelta egiten zituen egunean. Bertan jezten zituen ardiak eta gero esnea etxera ekarri behar. Bera ezkondu zenean, anaia izan zen artzain ofiziala. Txakurrei irakasteko denbora behar izaten da.</p>

16. Neguan ardientzat lekua prestatu behar baserrian

- **Erref:** BER-287/013
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:19:57. **Bukatu:** 00:21:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Neguan ardiak etxera ekartzen zituzten eta haien zat lekua prestatu behar izaten zen: sahatsa kendu, garoa bota, artxara ipini... Siku baldin bazegoen, basoan egoten ziren, baina, bestela, etxean. Bildotsak. Batzuk txarto etortzen ziren, eta jaiotzen lagundu behar.

17. Ardiak bildots bikietako bat maite ez duenean

- **Erref:** BER-287/014
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:21:02. **Bukatu:** 00:22:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Batzuetan, ardiek bildots bikiak izaten dituztenean, ez dute bata maite izaten. Egoera hori aldatzeko zer egiten zuten. Biki gehiago edo gutxiago jaiotzea urtearen arabera dela uste du.

18. Bildotsak plazara saltzera; harakinekin tratua

- **Erref:** BER-287/017
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:25:25. **Bukatu:** 00:27:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Bildotsak Bergarako plazara eramaten zituzten saltzera. Harakinak bertara joaten ziren bildotsak aukeratzera. Tratua nola egiten zuten. Merkatu plaza non zegoen.

19. Aitajaunak zezina labean nola prestatzen zuen

- **Erref:** BER-287/020
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:30:08. **Bukatu:** 00:31:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Pedroren aitajaunak ardi haragiarekin zezina nola egiten zuen labean sartuta. Buzkantzak ere egiten zituzten.

20. Aitajauna eta osaba Oñatitik Angiozarrera

- **Erref:** BER-287/023
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:00. **Bukatu:** 00:33:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Arotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Jose osaba arotza zen eta haize-errotak egiten zituen. Arrasateko azokara joaten zen saltzera. Mutiko bati esan ziona. Aitajauna eta osaba biak Oñatiko Bixain baseritik Angiozarrera ezkondu ziren eta elkarren ondoan bizi izan ziren. Osaba-izebek taberna izan zuten.

21. Bildotsak koskortzen

- **Erref:** BER-287/025
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:33:46. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Maiatz hasiera inguruan bildotsak basora eramaten zituzten. San Juanak inguruan, bildotsak etxeratu eta ardiak bidaltzen zituzten basora. Bildotsei moztutako buztanak babekin jaten zituzten. Aldamenean bizi zen gizon batek esan ziena.

22. Inguruetan ardi ugari; bakoitzak bere aharia

- **Erref:** BER-287/027
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:35:10. **Bukatu:** 00:38:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

San Juanak ingurutik atzera ardiak basoan ibiltzen ziren. Egunean bi buelta egin behar, haiek jeztera. San Kristobalak ingurutik atzera hasten zen gutxitzen. Irailean aharia berriz. Inguruko mendietan ardi asko batzen zen. Bakoitzak bere aharia izaten zuen, baina nahasten zirenean, nabaritzen zuten bildotsetan. Behin ardiak etxeratu eta txakurra konturatu zen kanpoko ahari bat zegoela ardien tartean.

23. Gerra sasoian soldaduek behorra lapurtu

- **Erref:** BER-287/033
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:42:14. **Bukatu:** 00:45:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Lau-bost behi eta idiak izaten zituzten baserrian. Ama gerra sasoian behorrek esnea saltzera joaten zen. Behorra nolakoa zen. Soldaduek lapurtu egin zuten eta goragoko auzo batera eraman. Aitak ibiltzeko baimena ateratu zuen udaletxean eta behorren bila joan zen. Hango tenientearekin izandako elkarrizketa.

24. Amak soldaduekin topo, esnea saltzera zihoala

- **Erref:** BER-287/035
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 00:46:14. **Bukatu:** 00:47:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939)
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Ama behorrek Bergarara joaten zen esnea saltzera. Gerra sasoian kalera zihoala soldadu talde batekin topo egin zueneko kontuak.

25. Aitajauna ezkutuan soldaduei begira

- **Erref:** BER-287/037
- **Iraupena:** 0:01:08. **Hasi:** 00:47:30. **Bukatu:** 00:48:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Aitajaunak San Kristobal ermitaren inguruan soldaduen mugimendua sumatu zuen eta soro barrenera joan zen, ezkutuka begiratzera. Soldaduren bat konturatu egin zen eta ozta-ozta libratu zen tiro bat jasotzetik.

26. Auzoko ermandadearen funtzionamendua

- **Erref:** BER-287/041
- **Iraupena:** 0:02:57. **Hasi:** 00:52:28. **Bukatu:** 00:55:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Auzokoen artean konpontzen ziren behia idiskoren batengana eraman behar zenean. Ermandadea ere bazuten, ganaduren bat gaixotu eta hiltzen zenerako. Komisioko kideak etortzen ziren. Gaixo txarra zenean, lurperatu edo erre egiten zen ganadua. Aprobetxatzeko modukoa zenean, etxe bakoitzari zati bat ematen zitzaion, zeukan ganadu kopuruaren arabera. Ordaindu ere proportzioan egiten zen.

27. Ganaduari emateko belarrik ez

- **Erref:** BER-287/045
- **Iraupena:** 0:02:53. **Hasi:** 00:59:34. **Bukatu:** 01:02:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Neguan arbia ematen zitzaion ganaduari. Lasto pixka bat eta belarra ere bai, baina gutxi. Inguru guztiak soroak izaten ziren eta belar gutxi egoten zen. Ahal zuenak zahia eta baba ere ematen zieten. Beraiek arbia eta erremolatxa. Elgetan ganadutegi batean erremolatxa egosteko galdara handi bat ikusita duela kontatzen du. Alpapa ere izaten zuten, eguraldiaren arabera. Ailorbea esne-behie edo haragitarakoei ezin izaten zitzaien eman, zapore txarra ematen zielako.</p>

28. Arbi-orriak eta haritz edo lizar-orriak ganaduarentzat

- **Erref:** BER-287/047
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 01:03:05. **Bukatu:** 01:05:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baratztea eta soroa
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Arbi-orriak batzen zituzten udazkenean. Arbiarentzat ona izaten zen eta ganaduak oso gustura jaten zuen. Udan haritz-orriak ematen zizkieten. Soldadutzan Orreagan egon zen. Han lizar ugari ikasi zituen eta etxe inguruetan pila handiak izaten zituzten lehortuta. Ardientzat zirela negurako esan zieten.

29. Ganaduarentzat haritz-orriak nola lortu

- **Erref:** BER-287/048
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 01:05:16. **Bukatu:** 01:06:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Ganaduari haritz-orriak emateko haritzaren adar handiak botatzen zituzten. Hartara, egurra ere izaten zuten. Hortzik gabeko igitaiarekin hostoak nola kentzen zituzten. Jende gehienak eskuz kentzen zituen lizar edo haritz orriak.

30. Tximiniak su hartu zueneko konponbidea

- **Erref:** BER-287/049
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 01:06:30. **Bukatu:** 01:08:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Behin aitak eta osabak, goizaldean lanetik etorrira, tximinian sua piztu zuten, abar-sorta batekin. Tximiniak su hartu zuen. Bi tiro botata konpondu ei zuten arazoa! Ordutik, Pedrok berak ere teknika bera erabili izan omen du inoiz, tximinia garbitzeko.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-06-21

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com